



# Paisaia eraldatzea

*Belardiek osatutako mosaikoen gainetik, paisaia berria barreiatzen da. Baserrietako nekazaritza-jarduera krisian dago; familia bakarrarentzako eraikin gehienetan, baserriaren eredu arkitektonikoa da nagusi, baina belarraren ordez, soropila nabarmenduz doa.*

**EUSKAL HERRIKO** isurialde atlantikoko landa-lurraldea baserriaren inguruan egituratu da tradizioz. Produkzio-unitate hori etxeak eta lurrek osatzen dute (lurren azalera oso gutxitan heltzen da 10 ha-ra).

## Baserria: paisaiaren kudeatzailea, lehen eta orain

Baserriak eta horren ustiakuntza-erak itxuratutako landa-paisaia honelakoxea izan zen: mendien maldetan sakabanatutako baso-alorrak eta belardiak. Gizakiaren kolonizazio-prozesua garatu ahala, larrediek ordeztu dituzte basoak. Lurraldea Antolatzeko Artezpideek —LAA deritzenek— honako hau xedatzen dute: *Euskal baserriak Autonomia Erkidegoko landa-paisaiaren atal dira, eta horiek jardunean mantentzeko ahalegina egin behar da.* (Eusko Jaurlaritza, 1997, 123. or.). Gaur egun, LAAEn arabera, baserria paisaiaren kudeatzailea da; baina, praktikan, baserrien bi herenetan, nekazaritza ez da inola ere jarduera nagusia. Baserriak etxebizitza baino ez dira, baina nekazaritza ia guztiz galdu da. Paisaia atlantikoko belardi esanguratsuak basoa belarkarek ordeztu izanaren ondorioa dira. Belardiok mantentzeak lan neketsua eskatzen du.

## Gaur egungo alternatibak

Gaur egun, kalitateko janarien ekoizpenarekin eta baserrietako jarduera berrikin lotutako alternatiba berriak bilatzen ari dira: berme-markak, labelak eta jatorrizko deiturak. Landa-turismoa irtenbide bat izan daiteke, jarduera ekonomiko berriak bilatzeari dagokionez. Baserri batzuk aldaketa horietara moldatuz joan dira; baina horiek ez dira baserri guztien %2-ra izatera heltzen. Tradizioz, baserria bere inguruaren kudeatzailea izan da, eta lurraldearen antolamenduak bera zaindu eta babes-teko ahalegina egin du beti; hala ere, antza denez, zail samarra da erronka hori eta lurralde-politikaren helburu orokorra bateratzea.

## Lurraldea antolatzeko politikaren oinarriak

Antolamenduaren baitan, belardiak hartzen dituen kategoriak beraien babes bilatzen du, honako helburu

## HELBURUAK

- Lurralde-politikaren eta paisaia-ren arteko lotura aztertzea.
- Paisaia atlantikoaren etorkizunari buruzko gogoeta egitea.

bikoitz honekin: lurzoruen gaitasun agrologikoa eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak mantentzea. Lehentasun horrekin bat, etxebizitza-erabilera bakartua nekazaritzako jarduerarekin loturik baino ez da onartuko; hazkunde urbanistikoa, gainerakoan, lehendik dauzen biztanleguneen barruan baino ez da baimenduko.

## Paisaiaren erabileran jazo ohi diren kontraesanak

Gure herri honetan, lurra horren baliabide urria izanik, lurralde-politika bi alderdiren artean ezbaian dabilkigu: batetik, baserria nekazaritzako ustiapen-unitate gisa mantentzeko printzipioa dugu, eta bestetik, *desurbanizazioa* deritzen *premiazkogizarte-beharrizanari* irtenbidea eman beharra.

## ARIKETA:

### **zuen inguruneko nekazaritza-jarduerak**

Ariketa honetan, zuen inguruan garatzen diren nekazaritza-jarduerei buruzko informazioa bilatzea proposatzen dizuegu. Eskualdea nahiz udalerria har dezakezue unitatetzat:



- Eskualdean, zenbat lagunek dihardute nekazaritzan?
- Ekonomiaren zenbateko portzentajea dagokio nekazaritzari?
- Nolakoa da inguruneko paisaia?
- Nolako etorkizuna dute zuen inguruneko baserriek?

Informazio horrekin, honako gai hauen gaineko eztabaidea antola dezakezue ikasgelan:

- Baserriaren iraganaldia, orainaldia eta etorkizuna.
- Nekazaritzaren eragina paisaiaren iraupenean.
- Administrazioak landa-paisaia eta belardiak babesteko hartzeko lituzkeen neurriak.

## Informazio gehiago:

EUSKO JAURLARITZA: **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak.** Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila. Vitoria-Gasteiz, 1997.